

2011KO ZERRENDAK ETENGABE ZABALIK EGONGO DIRA

2011ko uztailaren 12an (asteartea) aplikazio informatiko berri bat jarriko da, Fakultatiboek, Erizainek eta Emaginek aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena eman ahal dezaten. Zerrenda horiek beti zabalik egongo dira bertan izena emateko.

Izena emateko eskubidearekin batera, jarraian adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da:

-NANaren edo NIEren fotokopia konpultsatua.

-Kontratazio-zerrendari dagokion lanpostuan jarduteko behar den titulazioaren edo emateko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen frogagiri edo dokumentuaren fotokopia konpultsatua edo notarioren lekukotza. Atzerrian lortutako tituluak, dagokion Espainiako Ministerioak berauek homologatzen edo onartzen dituen erabakiarekin batera aurkeztu beharko dira.

- Lan-esperientzia aitortzen duen jatorrizko ziurtagiria edo horren kopia kautoa, notarioak egina, bertan xehe adieraziz: lan-denboraldi desberdinetan izandako kategoria, lotura juridikoa eta taldea, hasierako datatik (eguna, hilabetea eta urtea) amaierako datara arte (eguna, hilabetea eta urtea). Ziurtagiri horrek dagokion administrazio publikoko organo eskudunek emana behar du izan, eta horrelakoetarako ezarrita daukan ereduari jarraitu behar dio. Osakidetzan lan egin dutenek ez dute Osakidetzan egindako zerbitzuen ziurtagiririk aurkeztu behar, ofizioz konputatuko baita.

-Egiaztatutako euskera-tituluaren fotokopia konpultsatua. Ez da aurkeztu behar: Osakidetzak egindako hizkuntza-eskakizunen deialditan lortutako euskarako titulazioa, ez eta Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak interesatuari Osakidetzako hizkuntza-eskakizunekin baliokidetzen dion titulazioa ere.

Dokumentazioa ondorengo helbidera bidali beharko da:

Osakidetza-Servicio vasco de salud
Giza Baliabide Zuzendaritza
Alava kalea, 45 zki.
01006 Vitoria-Gasteiz